

## **2012-2013 IKASTURTERAKO ELKARBIZITZA ARAUAK**

Elkarbizitza arauak ezinbestekoak dira talde orok behar bezala funtziona dezan; taldeko kide guztien mesedetarako izango dira. Arau hauek ez dira inori bat-batean bururatutako azalferiak, urte luzetako esperientzia eta gogoetaren ondorio baizik.

Elkarbizitza arau hauek, BFA-ren (Barne Funtzionamendurako Araudia) zehaztapena dira; beronek, era berean, ikasleen eskubide eta betebeharrak buruz abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak dioena bildu eta garatzen du, beti ere dekretu horrek berak aipatzen duen lege-esparrua errespetatuz.

Arau hauek ez betetzea gutxien gutxienik jokabide desegokitzat (30. art.) hartuko da beti. Arauak ez betetze horrek hezkuntza-elkarteko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen badie, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat (31. art.) edota bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabidetzat hartuko da.

Ikastetxean matrikulatzeak, guraso edota lege-tutore zein ikasleen aldetik elkarbizitza arau hauek onartu egiten direla ondorioztatzen du. Aurretiko izenematea egiten denean araudi honen onarpen-sinatzea egiten da.

Ikasle guztiei emango zaie agiri hau, eta beroni buruzko informazioa ikasturte hasierako bileran luzatuko zaie guraso edota lege-tutoreei.

Hona hemen kontutan hartu beharreko alderdi batzuk:

### **1. ASISTENTZIA**

Klaseetara etortzea ikasleen eskubide eta betebeharra da. Eskola orduetan eta hauei ateratako etekinean datza, hain juxtu ere, ikasketa prozesuaren oinarrietako bat.

Klase orduetara huts egiteak, ahal dela, aurretiaz azaldu beharko dira; hala egin ezin baldin bada, gurasoen idatzizko agiri bidez eman beharko dira azalpenak ikaslea ikastetxera itzultzen den egun berean. Idatzizko agiri hori tutoreari erakutsiko zaio, eta hau ez balego, zuzendariari; horrez gainera, agiria absentzien erregistroan utziko da.

Emandako azalpenak ontzat ematea ala ez, irakasle taldeari eta MCMko zuzendaritza dagokio, zeinak kontutan hartuko baitu idatzizko azalpenari atxikirik legokeen edozein ziurtagiri.

Gaixotasunen batek eragindako ordukako absentziek trataera berezia izango dute azterketa aurretikoak baldin badira; honen harira, ez dira justifikatutzat joko egun osokoak ez diren gaixotasun absentziak (ikus 12. atala).

Goizeko 8etako justifikaziorik gabeko absentziek beste edozein ordutakoek bezalako trataera izango dute, eta bereziki larriak izango dira ondorengo orduren batean azterketaren bat baldin badago aurreikusita. Horrelako huts egiteek azterketa egiteko eskubidea galtzea eragin dezakete, dagokion irakasleak, tutoreak edota zuzendariak egoki baderitzo.

Justifikaziorik gabeko absentziek dagokien zigorra izango dute, bai eta espedientean dagokion isla ere.

BFAn eta 201/2008 dekretuko 38. artikuluan jasotzen den moduan, ikasgai batean %10eko hutsegiteak ebaluazio jarraiaren eskubidearen galera ondoriozta dezake, ikasgai hori aparteko deialdian ebaluatuko litzatekeelarik.

Ebaluazio jarraitako eskubidea ez da galduko, noski, absentzia horiek behar bezala justifikatuta baldin badaude. Huts egindako ikasgaiaren irakaslea arduratuko da huts egiteen zenbaketa egiteaz, bai eta absentzia horiek justifikatuta dauden ala ez ziurtatzeaz ere.

Absentzia bat justifikatu gabetzat jo dezake bai Irakasle Taldeak bai Zuzendaritza Taldeak baldin eta:

a) Dagokion idatzizko azalpenik ez badakar berarekin. Azalpen horrek absentzia eguna eta ikaslearen izen-abizenak argi eta garbi adierazi beharko ditu, eta ikaslea ikastetxera joaten den egunetik hasita bi eguneko epean aurkeztu beharko da. Epe honen osteko azalpenak ez dira aintzat hartuko.

b) Emandako azalpenak, gerta daitezkeen zenbait egoerarekiko bateraezinak baldin badira. Aipatutako egoerak ondokook izan daitezke:

- Une jakinetan edota behin eta berriz ematen den gaixotasun egoera egiaztatua.

-Mediku edota psikologo kontsulta.

- Erkidego, Estatu edota nazioarteko kirol txapelketa, beti ere dagokion federazio-agiriak ziurtatua.

-Familiartekoren baten heriotza.

- Beste erakunde batzuetako azterketa ofizialak.

-Irakasle edota Zuzendaritza taldeak, ikaslearen egoera pertsonala eta familiartekoa kontutan izanik apartekotzat har ditzakeen arrazoiak.

c) Behin eta berriro ematen diren absentzien kasuan, adibidez azterketa bezperatan, arratsaldetan ... gertatzen direnak, justifikaezintzat hartu ahal izango dira nahiz eta (b) sailekoak izan, non eta dagokion agiri ofizial edota profesional egokia aurkezten ez bada.

Ikastetxeko eremutik kanpoko eskola jarduerak, hala nola, txangoak, irteera akademiko edo kulturalak,... derrigorrez egin beharrekoak dira, eta euretara kale egitea beste kasuetan bezala hartuko da.

## **2. PUNTUALTASUNAZ**

Eskola ordura berandu iristeak kaltea baizik ez die eragiten gainerako ikaskideei, jarduera akademikoan etena eragiten dutelako. (23. Art.)

Horiek horrela, eta justifikaziodun egoeratan izan ezik, eskola hasierako txirrinak jo ostean iristen diren ikasleei ez zaie gelara sartzen utziko, aurreko eskola-tokia edozein dela ere (marrazketa, informatika, laborategiak,...). Kasu hauek justifikaziorik gabeko absentzia gisa hartuko dira, aurrez aipaturiko %10 horretan sartu ahal izango direlarik. MCMko pasillotik urruti dagoen gela bateko irakaslea bere eskola-orduan luzatu egiten bada, ikasleek hurrengo eskolara garaiz iristeko gutxieneko denbora bat behar dutela jakinaraziko diote irakasle horri.

Ikaslea gelara berandu iristen denean, liburutegira joango da, eta galdutako eskola-orduak eskola-ordutegitik kanpo ikastetxera etorri berreskuratuko ditu denbora jakin batez. Denbora hori aldakorra izango da; zenbaterainokoa den erabakiko duena neurri zuzentzaile hori hartu duen pertsona izango da.

Gorputz Heziketako irakasleak beharrezkoa den denbora utziko die ikasleei eskola ostean dutxa daitezten. Ustekabekoren bat gertatuz gero, irakasleak berak emango du beronen berri. Hala ez balitz, Gorputz Heziketako eskola osteko atzerapena, beste edozein atzerapenen gisa hartuko da.

## **3. SAKELAKO TELEFONOEZ, KAMERA DIGITALEZ ETA MUSIKAERREPRODUKZIORAKO TRESNEZ**

Sakelako telefonoak zein musika aparatuak erabiltzea debekatuta dago Ikastetxeko edozein tokitan, hala nola, pasillo, eskailera, gela edota kiroldegian aretoan.

Gerta daiteke irakasleren batek une jakin batean aparatu hauen erabilera baimentzea lan bat egiteko. Edozein kasutan erabilera arautua izango da eta ikaslea jakinaren gainean egongo da.

Oso zorrotzak izango gara puntu honetan okerreko erabilerak saihesteko, hots informazio akademikoen bilketa edo baimena gabe argitaratuak izan daitezkeen ikus entzunezko artxiiboak sortzea, edo horiek erabiliz ikasteko ezinbestekoa den

kontzentrazio maila galtzea. Horregatik Ikastetxean ikusten diren aipatutako tresnak berehala eta behin-behinez kenduko dira. Gainera, Ikastetxeak ez du beregain hartuko edozein galera edo lapurreta.

Badakizuen moduan, azterketa garaian txuleta edukitzeak Oeko nota ateratzea onduzkatzen du. Modu berean, gaur egun asko dira modu diskretuan informazio kopuru handiak jasotzen dituzten tresnak. Hori horrela izanik, azterketak egin bitartean **INFORMAZIOA JASOTZEKO GAITASUNA DUTEN TRESNA DIGITALAK** EDUKITZEA debekatu beharrean gara. Modu horretako tresnaren bat gelan sartzen duenak, gainerako gauzak bezala (berokia, motxila,...) irakasleak esandako tokian utzi beharko du. Azterketa egiten hasi aurretik irakasleak gogora ekarriko du ohar hau, inork nahi gabe ahaztu ez dezan.

#### **4. LEKUALDATZEEZ**

Batetik besterako lekualdatzeak azkar eta isilik egin beharko dira, lanean ari direnei inolako eragozpenik eragin gabe.

Ikastetxerako sartu-irtenak alboetako eskaileretatik egingo dira. Ikasleek ezin izango dituzte ikastetxera sartzeko eta bertatik ateratzeko eraikinaren erdian dauden eskailerak erabili, ez eta igogailua ere, ezintasun fisikoren bat dagoen kasuan salbu (kasu hauetan ez da sarrera nagusia erabiliko).

Jolas garaian pasilloa hutsik geldituko da eta geletako ateak itxita. Geletara ez da joaterik izango eskolak hasteko bost minutu falta direla adierazten duen txirrinak jo bitartean. Jolas garaian zehar MCM-ko ikasleak ikastetxetik atera ahal izango dira, bai eta ikastetxe barruko patioetan gelditu ere (euria denean kiroldegian edota estalpeetan egon ahal izango dute).

Edozein kasutan debekatuta izango dute ikastetxeko eraikinaren barruan gelditzea, "ate beltza"-ren ondoko eta irakasleen kafe-gelarako sarreraguneetan barne. Ate nagusiko eskaileretan esertzea ere debekatuta izango dute, jolas garaian erabili behar duenari trabarik ez egiteko.

Hirugarren solairurako igoera beti MCMko zuzendaritza akademikoaren bulegotik gertuen dauden eskaileretatik egingo da, besteek erlijiosoen elkartera eramaten baitute.

Marrazki gelara eta kimikako laborategira patiotik joango da, eta inoiz ere ez HHko pasillotik.

Pasilloko komunak klase artean eta lanegunen hasiera eta amaieran soilik erabili ahal izango dira. Jolas garaian zehar patioetako eta beheko solairuko komunak erabiliko dira.

## **5. MOTOEZ**

Motoak, berentzako bereziki prestaturiko gunean aparkatu beharko dira. Inolaz ere ezingo dira irakasleentzako soilik den aparkalekuan edota teilapean utzi.

Debekatutako tokiren batean ikasleren baten motoren bat ikusiz gero, denboraldi batez giltzarrapoz lotuta edukiko da, eta dagozkion neurriak hartuko dira.

## **6. KANPORATZEEZ**

Gelatik kanporatzeak aparteko kontua beharko luke izan batxilergoan. Etapa hau ez da derrigorrez egin beharrekoa, eta honenbestez, pentsatzekoa da bertan ikasle guztiak hala nahi dutelako daudela, eta euren helburua ondoren egin beharko dituzten ikasketetarako prestaketa egokia lortzea dela.

Horrez gainera, nerabegaroko jokaera oker eta aldrebesek desagertze bidean beharko lukete izan.

Klaseko kanporaketak saihestea oso erraza da. Nahikoa da jarrera normala izatea, hau da, neurritz kanpoko jarrera bortitzik ez izatea, irakaslearen azalpenak ez galaraztea, eta azalpen horiek arretaz jarraitzea.

Horiek horrela, kanporatze oro jokabide desegokitzat hartuko da, eta behin eta berriro kanporatzea bizikidetzaren aurkako jokabidetzat. Ikasleak liburutegira joan beharko du, eta eskola-ordu hori ikastetxeko estudioan berreskuratuko du, eskola-orduetatik kanpo; berreskuratze horretan zenbat denbora eman beharko duen dagokion irakasleak eta zuzendaritzak zehaztuko dute. Lehenengo kasuan, neurri zuzentzailea dagokion irakasleak jarriko du, eta beronek egingo du neurriaren betetzeari dagokion jarraipena. Ikasgai jakin batean ebaluazio baten baitan hiru kanporatze baino gehiago gertatuko balira, neurriak Zuzendaritza Taldeak hartuko ditu.

## **7. PERTSONEN ARTEKO HARREMANAZ MCM-n**

Harremanak errespetuzkoa izan behar du gutxien gutxienik, eta adeitsua bada, hobe. Harremani buruz ari garenean, ez gara irakasle eta ikasle arteko soilik ari, ikastetxeko kide guztien artekoaz baizik, hala nola, ikasle, irakasle, administrazio eta zerbitzuetakoez.

Egia izango da ikastetxeko elkarbizitzarako ardatza.

MCMn ez da inolaz ere inongo gogorkeria motarik onartzen, ez ahozko, ez eta fisikorik ere. Errespetu-arau hauen urratzea, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edota bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabidetzat hartuko da, 201/2008 dekretuan (II. eta III. kap.) aipatzen diren neurri zuzentzaileak gauzatuko direlarik.

## **8. DENON ESKURA DAUDEN INSTALAKUNTZEN ZAINKETAZ.**

Norberaren materiala behar bezala ez zaintzeak, eskura jarri dizkigutenekiko mespretxua adierazten baldin badu, are eta mespretxu handiago adierazten du ikaskideekiko zein MCM-rekiko guztiok erabiltzen ditugun instalakuntza zein materialaren zainketa okerrak.

Horma zein ikasmahaietan margotu edota markak egitea, gela hankaz gora uztea, ateark bortizki itxi eta irekitzea, leiho, komun edota informatika-tresnak behar bezala ez erabiltzea, erabilpen okerra egiten duen pertsonaren edota pertsonen ardura izango da, eta kalteei berak/beraiek egin beharko die/te aurre.

Era berean, hormetan ikastetxeko kanpainak edota bestelako ekintzak iragartzeko jartzen diren kartel eta material desberdinak ere errespetatu egingo dira.

Pertsona edota talde batek guztiontzakoak diren instalazioak kaltetzen baditu, tutoreak edota zuzendaritzat erabakitako aldi batez ezin izango ditu instalazio horiek erabili; horrez gainera, eta antzeko zerbait egiten duen aurreneko aldia ez bada, bestelako neurriren bat ere hartuko da.

## **9. GELEN ETA NORBERAREN GARBITASUNAZ**

Ikasgela, ikasteko gunea da. Horrenbestez, ezinbestekoa da ordena eta garbitasuna nagusi izatea.

Liburuak mahai, poltsa, motxila edota apaletan utziko dira, ez lurrean.

Laneguna amaitzen denean, ez da inolako materialik utziko ez lurrean, ez eta leiho-mentsulatan ere. Tokiok erabat libre egon behar dute garbitzaileek beren lana inolako oztoporik gabe burutu dezaten.

Dagokion tokian ez dagoen materiala erretiratu egin ahal izango da, eta baldintza jakin batzuetan eskuratu ahal izango da.

Norberaren higiena ezinbestekoa da elkarbizitzarako, eta errespetu-adierazgarri ere bada inguruko ikaskideekiko. Garrantzitsua da era berean ikasteko beharrezkoa den kontzentrazio mailari trabarik jarriko ez dion janzkera xume eta egokia ekartzea.

Arlo honetan egoki irizten ez zaion zerbait nabaritu balitz, lehenik ikasleari jakinaraziko litzaioke; behin hala eginda aldaketarik gertatuko ez balitz, familiari jakinaraziko litzaioke.

## **10.BAIMENDU GABEKO PERTSONEN SARRERAZ.**

MCM jabego pribatu batean kokatutako erakundea da, eta honenbestez, bere esku dago onartze-eskubidea. Galarazita egongo da ikastetxerako sarrera, patioak barne, lanegunetan eta baita ospakizun berezien (jaialdiak, 12 orduak,...) egunetan ere ikastetxekoak ez diren pertsonentzat (beste ikastetxeetara joaten diren lagunentzat, esate baterako), bai eta ekintzekin zuzeneko loturarik ez duten pertsonentzat ere (27.2 art.). Kanpoko pertsona hauen presentzia bizikidetzaren aurkako jokabide gisara hartuko da, eta beren sarrera ahalbidetu duen/duten ikaslearen/ikasleen ardurara izango da. Zigorra zuzendaritzak ezarriko du.

## **11.ERRETZEAZ.**

Galarazita dago erretzea. Indarrean dagoen legeriaren arabera, debekatuta dago ikastetxeko eremuaren baitan erretzea (patio eta aparkalekuetan ere bai). Erre nahi duenak, ikastetxetik kanpora atera beharko du.

## **12. AZTERKETEZ (30.1c Art.)**

Azterketak, ikasketa prozesuaren ebaluaziorako tresna nagusietako bat dira; hori dela eta, azterketa batera justifikaziorik gabe kale egiteak, azterketa hori ez errepikatzea edota bertan behera uztea eragin dezake.

Honen harira gogora ekarri beharra dago azterketa aurreko orduetan justifikaziorik gabe kale egiteak aurrez adierazitakoa eragingo duela, hots, azterketa-deialdiaren galera. Ikasleren batek lo hartu eta 8etarako iristerik izango ez balu, ikasle horrek berak deitu beharko du ikastetxera ordu horretan, bere ikaskideekiko abantailan erreposoa egiten ari ez dela erakusteko.

Ikaslea azterketa aurreko gauean edota orduetan ondoezik egonez gero, ikastetxeak proposatutako data beranduagoko batean egin ahal izango du azterketa, beti ere dagokion mediku-ziurtagiria aurkeztu ostean. Ez du azterketa egiterik izango ikastetxera lan-jardunaldia hasita dagoela joan baldin bada, eta azterketa orduan bertan baldin badago. Aitzitik, azterketa egiteko moduan izango da egun horretan bertan egindako mediku-ziurtagiria aurkezten badu, edota 1b. atalean zehazten diren arrazoietakoren bat tarteko bada. Modu honetan, ikasleak azterketa baldintza egokian egin dezan bilatzen da, eta bide batez bestelako maltzurkeriak saihestea ere bai.

Dagokiona baino beranduagoko data batean egin beharreko azterketaren data, ikasgai hori irakasten duen irakaslearekin adostuko da, zeinak horretarako ezarritako datak zein diren jakingo baitu. Gisa honetako azterketa batera aurkeztu ahal izateko, ikasgai horretako irakaslearen oniritzia beharko da.

Honen harira, komenigarria da azterketetara behin eta berriro kale egiteaz 1c atalean esaten dena gogora ekartzea.

Ebaluazio bat, arrazoi desberdinengatik (justifikaziorik gabeko absentziak, errepikakorrak diren absentziak edota orduen konpentsazioa ez betetzea) kalifikaziorik gabe gelditzen baldin bada, errekupeazioa maiatzeko azken frogetan egingo da; froga hauek ponderazio handiagoa izango dute ikasturteko batez bestekoarekiko.

Azalpenik gabeko absentziek edota azterketa bezperako edota aurretikako absentziek, azterketa horren beraren ebaluazio negatiboa eragingo dute.

Azterketa batean egiten den edozein kopiatzek edo kopiatze saiakerak azterketa hori suspenditzea eragingo du zuzenean, bi kopiatu duenarentzat, bai eta, hala balitz, kopiatzea ahalbidetu duenarentzat ere. Kopiatzea behin eta berriro emango balitz, dagokion ebaluazioa izango da suspendituta geldituko dena. Kopiatzea azterketa globaletan gertatuz gero, hutseko nota aterako du dagokion azterketan; horren ondorioz ikasgai hori aparteko deialdira pasatzeko arriskua legoke. Gertaera hau benetan larria litzateke 2. Batxilergoan gertatuz gero.

Ikasleek beren azterketa zuzenduta ikusteko eskubidea daukate.

Jarritako nota berrikustea eskatuko balu ikasleak, nota hori jakin osteko bi lanegunetan egin ahal izango du. Berrikuste horrekin ikaslea ados ez balego, beste berrikusketa bat eskatzeko eskubidea izango luke dagokion ikasgaiko departamenduko beste irakasle baten aldetik, lehen berrikustea egin osteko bi lanegunetan. Bi berrikusketetan nota aldaketarik balego, aldaketa hori goranzkoa zein beheranzkoa izan daiteke. Bigarren berrikustearekin amaituko zaio ikasleari erreklamaziorako bide administratiboa.

Ohiko zein aparteko deialdietako azken noten kasuan, aurrez aipatutako bidez gainera, erreklamazioa Hezkuntzako Ikuskaritza Probintzian egin ahal izango da.

Ikasleek beren ikasgaietako ebaluazio zein kalifikazio irizpideak jakin egingo dituzte; kalifikazio irizpide horiek dagozkien irakasleek argitaratu edo/eta eskainiko dituzte, eta gurasoen zein tutore legalen eskura egongo dira, irakasle bakoitzari eskatu ahal izango dizkiotelarik.

## **1 ERANSKINA -ORDU-KONPENTSAZIOAREN KUDEAKETA**

Behin txartela emanda, ikasleak izango du beronen ardura, bai eta eskola-orduetatik kanpoko orduen betetzearena ere. Ezinbestekoa da irakasle batek sarrera eta irteera orduak ikuskatzea, eta horrekin batera txartela betetzea. Hala ez bada, ordu-kompentsazioa bete gabetzat joko da.

Ikaslearen ardura izango da txartel hori eman dionari betetze data aurretik ematea. Hala ez bada, ikasketa-orduen kopurua handitu egingo da; honen ostean ikasleak



dagozkion orduak bete gabe jarraitzen badu, eskolak ikasketa gelatik edota liburutegitik jarraitu beharko ditu ikasketa-orduak hasi bitartean.

Ikaslea liburutegian zein ikasketa-gelan dagoen egunetan azterketaren bat egin beharra izango balu, ebaluazio ezkorra izango luke bertan.

### **OHAR GARRANTZITSUAK**

“Ez nekien” edota “ahaztu egin zait” moduko esaldiak ez dira kontutan hartuko, izan ere agiri honen irakurketa ezinbestekoa baita MCMn elkarbizitza behar bezalakoa izan dadin, eta funtzionamendu arazorik izan ez dadin. (26.1 Art.).

Jarritako zuzenketa-neurriak ez betetzea (26. eta 27.4. Art.) bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edota bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabidetzat hartuko da, eta beronen zuzentzea Ikastetxeko Zuzendaritzaren ardura izango da. Okerrak behin eta berriro egitea, jarrera aldatu nahi ez izatearen zeinu gisara hartuko da, eta ondorioz ikaslearenganako konfiantzagalera eragingo du. Halako kasuetan, ikaslearen partaidetza murriztu egingo da ikastetxeak antolatzen dituen ekintza osagarrietan, hala nola, irteeretan, kirol ekintzetan, danborradan, edota Pariserako bidaian.

1. mailatik 2. mailara pasatzeak ez du ikaslearen jokabide okerren espedientearen deuseztatzea ekarriko. Bestalde, jarrera baikor eta lagunkoiranzko aldaketa jarraia emanez gero, kontutan hartuko da, eta neurri zuzentzaileen berrikustea ekar dezake.

Ikastetxeko helbide elektronikoa, egutegia, bloga eta twitter kontua, komunikaziorako tresna baliagarriak dira bakoitza bere arloan familiei oharren, informazioen, araudiaren, eta jokabide mota desberdinen (desegokiak, bizikidetzaren aurkakok edota bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak) berri emateko.